

# Arantzazu

## *Bitoriano Gandiagaren Begitan*



Argazkia: Aitor Sorreluz

## Arantzazuko mendiak

## ARANTZAZUKO MENDIAK

Aloña eta Artia.

Haitz eta larre Aloña,  
Artia baso hertsia;  
Artia baso hertsia,  
itzaltsu eta handia.

Arantzazuko mendiak  
Aloña eta Artia.  
Zuhaitzez, belardiz, haitzez,  
tarteko zabal guztia,  
hango ta hemengo etxe  
banaka batek jantzia.

Arantzazuko mendiak  
Aloña eta Artia.  
Artia aspaldi zaharra,  
Aloña garai berria;  
bien arteko erreka  
bien arteko zubia.

Arantzazuko mendiak  
Aloña eta Artia.  
Artia lotaratua,  
Aloña iratzarria,  
Aloña eraikin berri,  
harri zaharrez eraikia.

Arantzazuko mendiak  
Aloña eta Artia.  
Artiaren ainuberantz  
Aloñaren ibargia.  
Aloñak begi-bistan du  
Artiaren edestia.

Aloña mendiaren maldan dago Azkartza, eta bertako harkaitzen gainean Arantzazuko santutegia, lurrak eraturiko kabi modukoan babestua. Beherago arro sakona, eta bertan Urkullu eta Beilotza erreken topagunea, Arantzazu erreka sortuz. Erreka-ren mugatik beste aldera, berriz, Artia mendia, Araba aldeko zeru-ertzean galtzen dena.

Aloña eta Artia: mundu bi dira Bitoriano Gandiagarentzat, oso ezberdinak: baso oparoz jantzia Artia, harkaitz eta lurgorri Aloña. Ar-

tian dago Artaso, historiaurreko euskaldun jentilen hilobi-trikuharrien leku sakratua, Gandiagak berak aurkitua, Arantzazuko santutegitik begiratuta aurrez aurre.

Gure poetak, ordea, ez ditu bata bestearen arerio ikusten Arantzazu eta Artaso; euskal jendeen garai ezberdinen testigu dira bata eta bestea: Artaso jentila hiltzean, Arantzazu kristaua iratzarri zen. Arantzazun bizi da bera, eta bereziki maite du; baina maite du Artaso ere.